

B E R R I A K

G U R E I L L A K

Pierre Lhande ta Heguy (1877-1957)

Leenbiziko ikasketak bere jaioterrian, Bayonan egin zituen, Collège St. Bernard-en. Bigarrenak Maule-n, Collège St. François-en. Filosofia Bayonako Seminarioan. Gero Jesus-en Konpañian sartu zen 1.900 urtean eta 1.910-garrenean artu zituen ordenu sakratuak Toulouse-ko Unibersidadean irakasle izan zen, Letra-Fakultadean. Euskaltzaindia sortu zenetik izendatu zen Euskaltzain.

Lan asko ditu egiñak eta argitaratuak, bai euskeraz eta bai erderaz. Bere iztegia ere lan aundia ta baliotsua da. (Begiratu Euskera, 1,920, p. 28). Leenbiziko urteetan Euskera beraren argitaratzaillea izan zen.

R. M. AZKUE, KATEDRA

Bagillaren leenbiziko igandean, ikastaroa bukatzean, urtero bezala Euskaltzaindiak ezarrita duen R. M. Azkue katedrako ikasle-irakasleak eta euskal-teatruko kideak Zumarraga-ra antolatu zuten ibiltaldia. Antigua-ko Amaren eleizan esan zen meza bat, Aita Berriatua-ren "Lagunarteko meza", erabili zelarik populuak meza obeki jarraitu zezan. An egon ziren ere Elgoibar-ko euskal-ikasleak, Gazteiz-ekoak, Durango-koak, Donostia-koak eta beste zenbait tokitakoak. Arratsaldean teatrugilleak ango zelaian, egurats zabalean, poztu ginduzten beren gauza bozkariotsuekin. Lanak merezi du zerbait atsegingarri eta alaitasunak ezitio kalterik egiten, mesede baiño.

«LEN ETA ORAIN»

Iru liburu agertu dira aurten Euskaltzaindiaren ardurapean: *Olerkiak*, Arrese ta Beitia-ren bertsoak; *Testamentu berriko kondaira*, Lar-dizabal-en berrargitaraziñoa; eta *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Jose Luis Alvarez Enparanza-k egin duen novela